

LANKIDETZA HITZARMENA BERGARAKO UDALAREN ETA MAIJOKU ELKARTEAREN ARTEKOA

Begaran, 2018ko urriaren 31an.

BILDURIK

Ald e batetik, María Elena Lete García, Bergarako Udaleko Alkatea, Bergarako Udalaren izenean, M^a Concepcion Ugalde Iceta udaleko idazkariaren laguntzarekin. Azken honek, halaber, ekintza hau egiaztatuko du.

Bestetik, Iker Dominguez Gallego, Maijoku elkartearen lehendakaria, elkartearen izenean.

Iker Dominguez Gallego jaunak zinpean alkate andrearen aurrean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta.

Ondoren, alde biek elkarri aitortzen diote kontratatze gaitasuna, eta aurrekari gisa, honakoa

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- Azaroaren lehen astean Nazioarteko zientzia eguna ospatzen dela eta, Bergarako Udalak aurten ere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak antolatuko ditu urriaren 15etik azaroaren 11ra bitartean.

Jardunaldi horien barne, mahai-jokoaren sustapen eta hedapenerako helburua duen MAIJOKU elkarteak, "Wolfram Encounter, bideo-jokoaren lehiaketa" ekitaldia antolatzeko prest azaldu da, eta udalari ekintza hori aurrera eramateko laguntza eskatu dio eta ekintza Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzak jardunaldien programan sartzea.

Elkarteak antolatuko lukeen ekitaldiaren helburua da teknologia berrien aukerak eta erabilera aukerak gazteei ezagutzera ematea mahai-jokoaren eta bideo-jokoaren bidez, modu arin, entretengarri eta gertukoan.

Lehiaketak maila desberdinetan sailkatuta egongo dira, 18 urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute eta gaztetxoek berriz, beraiei zuzendutako mailetan eta beti ere gurasoen baimenarekin.

Bide batez, Bergarako gaztedia eta zientziaren arteko lotura nabarmenduko da.



Bigarrena.- Udalak 2018ko urriaren 30ko dekretu baten bitartez erabaki du 10.000 euroko diru-laguntza ematea eta bi aldeen betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

Lehena.- MAIJOKU elkarteak "Wolfran Encounter, bideo-jokuen lehiaketa" izenarekin aurkeztu duen proiektuan deskribatutako ekintzak antolatu eta burutuko ditu 2018ko azaroaren 9, 10 eta 11n.

Ekintza horiek aurrera eramateko betebeharrak guztiak elkartearenak izango dira, udalak ez baditu espresuki hitzarmen honetan bere gain hartu. Beraz, ekitaldi horiek aurrera eramateko, besteak beste, honako betebeharrak hartuko ditu bere gain elkarrekin:

- Lehiaketa diseinatu, parte-hartzaileak lotu eta ekitaldia bera orokorrean koordinatzea.
- Ekitaldia egiteko eraikina lortu eta baita ondorengo baliabide teknikoak: Elektrizitatea, argia eta soinua, Internet eta Telebistak ere.

Gainera honako konpromisoak ere hartzen ditu:

- Udalak egingo dituen ikuskapenak ez oztokatzea.
- Jasotako diru-laguntzaren erabilerari buruzko agiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.


- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarrekin. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

- Diruz lagundutako jarduera egiteko behar diren baimen guztiak lortzea.
 - Jardueren ondorioz hirugarrengei eragindako kalteak ordaintzea.
- Hortarako erantzukizun zibileko poliza bat izan beharko du.



Hirugarrena.- Bergarako Udalak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- Honako baliabide teknikoak jartzea: Tarima modularrak, mahai txuriak eta aulkiak, lurra estaltzeko gomak eta elektrizitate konexiorako baliabideak.
- Ekitaldi hasiera eta amaieran baliabideak deskargatzeko eta lokalean muntatzeko Maijoku elkarteko bazkideei laguntzeko Bergarako Udaleko bi langile laguntzaile jartzea.
- Ekitaldiaren aurretik eta amaieran Bergarako Udalak ekitaldiaren berri ematea sare sozialetan eta www.ztbergara.eus web gunean, ekitaldiaren hurrengo egunean.
- “Wolfran Encounter, bideo-jokuen lehiaketa” Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldien barruan sartzea, adierazita antolatzailea Maijokoa elkarte delarik eta udala laguntzailea.
- Maijoku elkarteari ZTB jardunaldietan Wolframa Encounter ekitaldia garatu ahal izateko, 10.000 €ko diru-laguntza ematea.




Diru-laguntzaren 1. zatia (diru-laguntzaren %60a, 6.000 euro) ordainduko da MAIJOKU elkarteak Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatu ondoren. Horretarako hitzarmen hau sinatzean baimena ematen dio udalari egiaztagiria lortzeko.


Bigarren zatia (diru-laguntzaren %40a, 4.000 euro) jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu MAIJOKU elkarteak 2018ko abenduaren 30a baino lehen:

a) Diru laguntza “ordaintzeko” eskaera-ordria, behar bezala beteta eta sinatuta.

b) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat, eta bertan honako hauek jasotzeko behar dira:

- 
- Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan.
 - Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean.
 - Lortutako helburuen justifikazioa.
 - Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.

c) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- 
- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala ... balego).
 - Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia, ...).
 - Fakturatutako gastuaren kontzeptua edo pareko dokumentuan jasotakoa.

- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— zenbatekoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— jaulkipen-data.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— ordainketa-data.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenaz).

f) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio).

g) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Laugarrena.- Bergarako Udalak MAIJOKU elkarteari emango dion 10.000€-ko diru-laguntza horren barne daude egitaraua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak, besteak beste ondorengoak:

- Elkarteak kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ekitaldirako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ekitaldia aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak, ez baditu udalak bere gain hartu.
- Ekitaldia aurrera eramateko beharrezko diren erantzukizun zibileko polizak.
- Ekitaldiak antolatu eta aurrera eramateak eragindako gastu eta koste guztiak.
- Sortu daitekeen beste edozein gestio edo gastu.

Bostgarrena.- MAIJOKU elkarteak ekintzen gainean egindako publizitatean (kartelak, esku programak....) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batetan, eta garbi utzita Bergarako udala laguntzailea dela.

Seigarrena.- Hitzarmen honetako bi aldeek beraien harreman-sarea baliatuko dute ekitaldia iragartzeko eta zabaltzeko, gonbidatuak erakartzeko eta komunikabideak deitzeko. Ekintzaren berri emateko, alde biek, data bat adostuko dute eta komunikazioa egiteko era zehaztu ere ekintzaren berri emateko.

Zazpigarrena.- Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua emandako diru ekarpena baino txikiagoa balitz, Udalak zati bat itzultzea eskatu ahal izango dio.

Txosten ekonomiko horretan MAIJOKU elkarteak egitarau honetarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin MAIJOKU elkarteak gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu Udalak eskubidea izango du era berean diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko,



edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen berririk egingo.

Udalak MAIJOKU elkarteari egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Zortzigarrena.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan.

Bederatzigarrena.- Ezingo da aldaketarik egin diruz lagundutako programan, ez eta bertan aurreikusten den denbora baino gehiago erabili ere, aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu.

Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Hamamargarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamaikagarrena. - Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztia, diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

Hamabigarrena.- Hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan eragindako kalteen erantzule MAIJOKU elkartea bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

Hamahirugarrena.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunean bertan sartuko da indarrean eta indarrean egongo da programa bukatu eta memoria aurkeztu eta udalak ontzat eman eta askoz jota 2018ko abenduaren 30erarte.

Hamalauagarrena.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.



Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



IDAZKARIA
M^a Concepción Ugalde

BERGARAKO ALKATEA
Maria Elena Lete

MAIJOKU elkarte
Iker Dominguez Gallego

